

IÑIGO URRUTIA

Nolako eragina du euskaldunongan azkenaldiko euskararen judizializazioak?

2025-10-21



PLAZA

Sententzia-hotsa presente dago euskararentzat: ez ditu alferrik kontatu Iñigo Urrutiak normalizazio-prozesuen kontrako 52 epaitik gora, azken urtebetean. Epai horien atzean egon daitezkeen arrazoiez aritu zen EHUKo administrazio-zuzenbideko irakaslea, eta euskaldunongan zurrumbilo horrek guztiak izan dezakeen eraginaz hausnartu zuen. Aurrera begira, une honetan Legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren proposamenak ere aletu zituen.

1. Lege-testuingurua aztertzeak gauzak argitzen dituela azaldu zuen Iñigok. Eta, testuinguru horrek, erreferentzia garbi bat du: 80. Hamarkadan osatu zen hizkuntza-normalizaziorako legeria, 1982ko euskararen legea oinarri duena. Iñigoren esanetan, **hizkuntza gutxituak (eta oro har, gutxiengoak) babesteko europar ereduari erantzuten dio garai hartan diseinatutako legeriak**: banaketa eta bikoizketa zituen eredu; hau da, hizkuntza gutxituan eta hegemonikoan gauza bera egiteko aukera babestea zen helburua.

2. Ordutik honaino ez da denbora gutxi pasa, baina estatuaren joerak etenik ez duela izan esan zuen Iñigok: ixten joan da, atzera egin du, ez du errealitate berriekin bat egin nahi izan. Goian aipatutako legeria egin zen garaian modu irekiagoan jokatzeko espainiar gobernuak, eta zer esanik ez epaileak. Bada, tira, begira gaur egun: **azkenaldiko sententzia-oldearekin, euskararen legeria bera ere kolapsatu egin dute.**

3. Guzti horren atzean parametroak alderantzizkatzea dago, nolabait. Normalizazioak zerbait "normal" bihurtzea dakar, eta prozesu hori "inposizio" bat dela da epaien atzean dagoen diskurtsoa. Guk badakigu euskarari nolabaiteko pribilejiozko tratua ematen ez bazaio, ez bada lehenesten, ez bazaio diskriminazio positiboa aplikatzen, auzia ez dela konponduko. **Bada, epaien atzean dagoen arrazoibidearen arabera, justu kontrakoa da defendatu behar dena: euskaraz ez dakiena, hain zuzen ere.**

4. Honek guztiak nola eragin du euskaldunongan? Segurtasun juridiko falta nabarmena ekarri du, hasteko. Eta hori bereziki udaletan ikusten da, herritarrongan gertukoak diren erakundeetan. Zalantza asko daude, zer egin, noraino joan... **Euskalgintzan azkenaldian asko nagusitu den diskurtsoa (jauzia, bidegurutzetik ateratzea, tresna berriak bilatzea...) euskararen legeriak ere behar du: zaharkituta geratu da.**

IÑIGO URRUTIA

Nolako eragina du euskaldunongan azkenaldiko euskararen judizializazioak?

2025-10-21



5. Segurtasun juridiko falta horren aurrean bi alderdi politiko nagusiek egindako proposamenak ere aztertu zituen Iñigo Urrutiak. EAJren kasuan, derrigortasun-indizea kendu eta udalen hizkuntza-irizpideen arabera hizkuntza-eskakizunak ezartzea defendatzen duenak, hain justu ere udalen bizkarrean erantzukizun handiegia jartzea ekar dezakeela ohartarazi zuen. Eta EHBilduren kasuan (euskararen derrigortasuna lanpostu guztietan jartzea, eta salbuespen-politika bat ezartzea) errekurtsoen arriskua nabarmena izan daitekeela ere bai. Baina, itxaropenerako argi-izpi bat ere ekarri zuen: bi proposamenen arteko bateratze bat egitea posible dela uste du Iñigok.

6. Bukatzeko, azkenaldian aipagai dugun estatus berriaren inguruko eztabaidan euskararen gaia txertatzearen garrantziaz ohartarazi zuen Iñigok. **Eta ez txertatu bakarrik: ardatz-izaera izan behar duela adierazi zuen.** Legislazio berri batek oinarri politiko sendoak behar ditu, eta aukera berri bat hortik etor daitekeela esanez bukatu zuen jabetze eskolaren saioa.